

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO
DEPARTAMENTUA**

*16/2020 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Ingurumene-
neko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egi-
tura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.*

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren jarduera eremua eta egitekoak eta horretarako beharrezkoa duen antolaketa ezartzen dituzte, hurrenez hurren, diputatu nagusiaren 3/2019 Foru Dekretuak, ekainaren 29koak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 14. artikuluan, eta 19/2019 Foru Dekretuak, uztailearen 1ekoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarritzko departamentu egiturari buruzkoak, 10. artikuluan.

Aipatutako 3/2019 Foru Dekretuaren 14. artikulua araber, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak bere gain hartzen ditu izen bereko aurreko departamentuaren jarduketara arlo eta eginkizun guztiak, eta berariaz sartzen ditu gai hauek buruzkoak: klima aldaketaren kontrako borroka, jasangarritasun energetikoa, jasangarritasuna (Agenda 21 eta Agenda 2030), ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa, eta ekonomia zirkularra.

Bestalde, departamentuen arteko arloen eta eginkizunen banaketa argitze aldera, diputatu nagusiaren irailaren 29ko 6/2020 Foru Dekretuaren bidez, aipatutako 14. artikulua j) letra aldatu da, adierazitako eginkizun ez gain, departamentuari gai hauek esleitzeko: bizikleta bideen azpiegituren arloan: lankidetzako teknikoak eskaintzea Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuari Foru Bizikleta Bideen Sarea garatzeko; eta gainbegiratze teknikoak egitea, bai aipatu departamentuak kudeatzen dituen bizikleta bideak eraikitze proiektuak idatzi, izapidetu eta onestera, bai proiektu horietako obrak kontratatu eta gauzatzera.

Bestalde, aipatutako 19/2019 Foru Dekretuaren 10. artikulua departamentuari esleitutako jardun esparru eta eginkizun horiei behar bezala erantzun dien oinarritzko konfigurazio organikoak finkatzen du, bi zuzendaritza nagusi hauek osatutakoa: Ingurumena eta Obra Hidraulikoak.

Horren arabera, departamentuaren egitura honako hau da: aipatutako bi zuzendaritza nagusiak -bakoitza bere zerbitzuekin- eta, gainera, Idazkaritza Teknikoa.

Ingurumenaren alorrean, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundearen eta bere Lurralde Historikoetako foru erakundearen arteko harremanei buruzkoak, 7. artikuluko c) 6 atalean, sailkatutako jardueren gainean esleitzen dizkion eskumenak eta 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorak, Euskal Herriko Ingurumena Babestekoak, aitortzen dizkionak izango ditu.

Obra hidraulikoen alorrean, departamentuaren zereginak eta eskumenak dira 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7. artikulua a) 10 eta b) 4 ataletan zehaztutakoak eta Uraren 2006ko ekainaren 23ko 1/2006 euskal Legetik eratorritakoak, hau da: azpiegitura hidraulikoei buruzko herrilanak; eta ibaietako ur publikoen

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y OBRAS HIDRÁULICAS**

*Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, sobre es-
tructura orgánica y funcional del Departamento de
Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.*

El artículo 14 del Decreto Foral del diputado general 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, y el artículo 10 del Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio, sobre estructura departamental básica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, establecen el ámbito de actuación y las funciones que se atribuyen al Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas y la organización con la que se dota para ello.

De conformidad con el artículo 14 del citado Decreto Foral 3/2019, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas asume todas las áreas de actuación y funciones del anterior departamento del mismo nombre, incluyéndose además expresamente las relativas a la lucha contra el cambio climático, sostenibilidad energética, sostenibilidad (Agenda 21 y Agenda 2030) y educación y sensibilización ambiental, así como economía circular.

Por otro lado, y al objeto de clarificar el reparto de áreas y funciones entre los distintos departamentos, por Decreto Foral del diputado general 6/2020, de 29 de septiembre, se ha modificado la letra j) del referido artículo 14 para atribuir además al departamento, en materia de infraestructuras de vías ciclistas, la colaboración técnica con el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio en el desarrollo de la Red de Vías Ciclistas Forales y la supervisión técnica en la redacción, tramitación y aprobación de los proyectos de construcción de las vías ciclistas gestionadas por dicho departamento así como en la contratación y ejecución de las obras de estos proyectos.

Por su parte, el citado artículo 10 del Decreto Foral 19/2019 fija la configuración orgánica básica que ha de responder a las áreas de actuación y funciones atribuidas al departamento, y que se compone de dos direcciones generales: de Medio Ambiente y de Obras Hidráulicas.

En cuanto a la estructura del departamento, además de las dos direcciones generales señaladas con sus respectivos servicios, contará con una Secretaría Técnica.

En materia de medio ambiente, se ejercitan las competencias que, relativas a actividades clasificadas, resultan del apartado c) 6 del artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y las reconocidas por la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

En materia de obras hidráulicas, las funciones y competencias son las que resultan de los apartados a) 10 y b) 4 del artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, y las derivadas de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco, esto es: obras públicas relativas a infraestructuras hidráulicas y poli-

eta horien berezko ubide, urbazter eta zorguneen zaintza. Horrez gain, departamentuaren esku egongo dira baita ere diputazioek dituzten zereginak ondorengo alorretako udal mailako edo udalaz gaindiko zerbitzu publikoei dagokienez: ur hornidura eta saneamendua, uholdeen prebentziorako obrak eta hiri hondakinak.

Orobat, hainbat funtzio garatzen dira, sorburu dituztenak lege eta estrategia hauek: bai 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa; bai Gipuzkoako Klima-Aldaketaren Aurkako Borroka-Estrategia 2050, zeintzuek ezartzen baitituzte, alde batetik, zenbait xede eta helburu, bideratuak daudenak energia-aurrezpena eta energia-efizientzia bultzatzera, eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera, eta bestetik, zenbait ekintza zehatz, klima-aldaketaren arintze eta egokitzapen arlokoak, lurraldean. Gai horretan, eta nola sortu baita Jasangarritasun Energetikoaren Gipuzkoako Batzordea, bitarteko dela 4/2020 Foru Dekretua, martxoaren 17koa, bada, aparteko garrantzia hartzen du koordinazio betekizunak, hau da, Ingurumen Zuzendaritzak foru departamentu eta entitateen artean betetzen duenak.

Horrez gain, kontuan izanda Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa eta Etorkizuna Eraikiz eredu agintaldi honetako foru gobernuaren jardunaren oinarri izango direla, departamentuaren antolaketa eta eginkizunak egokitu dira horiek aplikatu eta ezartzeko.

Aurrekoari jarraikiz, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzea da foru dekretu honen xedea.

Horrenbestez, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.4.c), 40.2.a) eta 65. artikuluetan xedatutakoaren indarrez, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak eta Gobernantza Departamentuko foru diputatuak batera proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Departamentuaren eginkizunak eta eskumenak.

1. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren eginkizunak eta jarduera esparruak honako hauek dira:

- a) Hiri hondakinaren Kudeaketaren planifikazioa eta garapena, eta ekonomia zirkularra.
- b) Jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa. Agenda 21 eta Agenda 2030.
- c) Jasangarritasun energetikoa.
- d) Erresilientzia eta azpiegitura berdeak. Ingurumen ebaluazioa.
- e) Klima aldaketaren aurkako borroka.
- f) Hondartzen eta itsasertzaren Kudeaketa integrala.
- g) Jarduera sailkatuak.
- h) Lurraldeko hornidura eta saneamendu sarea osatzea.
- i) Aforalekuen sarea. Ibaien eta akuiferoen azterketa eta kontrola, mantentzea eta berritzea.
- j) Uraren kalitatearen kontrola.
- k) Oztopoak iragazkortzeko Plan Gidaria.
- l) Bizikleta bideen azpiegitura arloan: lankidetzat teknika eskaintzea Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Depar-

ta de aguas públicas continentales y de sus cauces naturales, riberas y servidumbres. Todo ello junto con las que derivan del papel de las diputaciones respecto de los servicios públicos de carácter municipal o supramunicipal en materia de abastecimiento y saneamiento de aguas, obras de prevención de inundaciones y residuos urbanos.

Asimismo, se desarrollan las funciones derivadas tanto de la Ley 4/2019, de 21 febrero, de Sostenibilidad Energética, como de la Estrategia Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático 2050, que establecen las metas y objetivos orientados al impulso de ahorro y eficiencia energética, promoción e implantación de energías renovables y acciones concretas en materia de mitigación y adaptación al cambio climático en el territorio. En esta materia, y con motivo de la creación de la Comisión Foral de Gipuzkoa para la Sostenibilidad Energética mediante Decreto Foral 4/2020, de 17 de marzo, cobra especial relevancia el papel de coordinación que ejerce la Dirección de Medio Ambiente entre los diferentes departamentos y entidades forales.

Junto a todo ello, la acción del gobierno foral en el presente mandato se vertebrará sobre el Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el modelo Etorkizuna Eraikiz, para cuya aplicación e implantación se adecúan la organización y funciones del departamento.

De conformidad con lo expuesto, es objeto del presente decreto foral establecer la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto en los artículos 31.4.c), 40.2.a) y 65 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a propuesta conjunta del diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas y de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Funciones y competencias del departamento.

1. Al Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

- a) Planificación y desarrollo de la gestión de residuos urbanos y economía circular.
- b) Sostenibilidad y educación y sensibilización ambiental. Agenda 21 y Agenda 2030.
- c) Sostenibilidad energética.
- d) Resiliencia e infraestructuras verdes. Evaluación ambiental.
- e) Lucha contra el cambio climático.
- f) Gestión integral de las playas y litoral.
- g) Actividades clasificadas.
- h) Completar la red de abastecimiento y saneamiento del territorio.
- i) Red de aforos. Estudio y control de ríos y acuíferos, mantenimiento y renovación.
- j) Control de la calidad del agua.
- k) Plan director de permeabilización de obstáculos.
- l) En materia de infraestructuras de vías ciclistas: la colaboración técnica con el Departamento de Movilidad y Ordena-

tamentuari Foru Bizikleta Bideen Sarea garatzeko, eta gainbegiratze teknika egitea, bai aipatu departamentuak kudeatzen dituen bizikleta bideak eraikitze proiektuak idatzi, izapidetu eta onesterakoan, bai proiektu horietako obrak kontratatu eta gauzatzekoan.

m) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

2. Horiez gain, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, bere zuzendaritza nagusien, zerbitzuen eta unitate organikoen bidez, lankidetzan estuan jardungo du Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin azken horren lidergopean dauden zeharkako proiektuak garatu, kudeatu eta gauzatzekoan.

Xede horrekin, lanean zeharkakotasuna eta barruko zein departamentuen arteko kooperazioa nahiz koordinazioa errazteko eta bermatzeko egokiak diren bitartekoak jarriko dira.

2. artikulua. Oinarrizko egitura organikoa.

1. Departamentuak, bere eskumenak betetzeko eta foru diputatuaren goi gidaritzapean, ondorengo unitate organikoak ditu:

- a) Ingurumen Zuzendaritza Nagusia:
 - Ingurumen Zerbitzua.
- b) Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia:
 - Obra Hidraulikoetako Zerbitzua.
 - Geotekniako eta Baliabide Hidraulikoetako Unitatea.
 - Uraren Kontrol eta Kalitateko Unitatea.
- c) Idazkaritza Teknikoa.

2. Departamentu honi atxikitzen zaio «Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa» foru fundazio publikoa.

3. artikulua. Foru diputatuaren eginkizunak eta eskumenak.

1. Diputatuaren Kontseiluko kide gisa dituen eginkizunetaz gain, departamentuko foru diputatuari dagokio, bertako titularrak eta hierarkikoki goi organoa denez, unitate organiko guztiak zuzendu eta kontrolatzea.

2. Bere eginkizunak betetzeko, departamentuko foru diputatuak ditu, printzipioz eta uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40. artikuluan aurreikusitako eran, departamentuak kudeatzen dituen eta foru arau hark, foru dekretu honek, edo ondorengo beste arauen batek berariaz departamentuko beste organo batzuei esleitzen ez dizkieten gaiak ebazteko eskumen guztiak.

3. Foru diputatuak bereganatu ahal izango du bere mende-ko administrazio organoari, berez edo eskuordetzaz, ebaztea dago- kien gairen baten ardura.

4. artikulua. Zuzendari nagusiak.

1. Zuzendari nagusiak departamentuko zuzendaritza organoetako titularrak dira eta beren gain hartzen dituzte haien buruzagitza eta erantzukizuna. Hortaz, oro har uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 46. artikuluan biltzen dituenaz gain, ondoko eginkizunak betetzea dagokie:

a) Gobernu programa eta Plan Estrategikoa inplementatzea, ikuspegi estrategikoa eta zeharkakotasuna txertatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan.

b) Politika publikoak ezartzea eta departamentuko foru diputatuak ezarritako kudeaketa helburuak betetzea.

ción del Territorio en el desarrollo de la Red de las Vías Ciclistas Forales; y la supervisión técnica en la redacción, tramitación y aprobación de los proyectos de construcción de las vías ciclistas gestionadas por dicho departamento, así como en la contratación y ejecución de las obras de estos proyectos.

m) Las demás competencias que se le atribuyan por la normativa aplicable.

2. Igualmente, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, a través de las direcciones generales, servicios y unidades orgánicas que lo integran, prestará la máxima colaboración al Departamento de Proyectos Estratégicos en el desarrollo, gestión y ejecución de los proyectos transversales que lidere dicho departamento.

Asimismo, se habilitarán los cauces que resulten más adecuados para facilitar y asegurar el trabajo transversal y la cooperación y coordinación intra e interdepartamental a estos efectos.

Artículo 2. Estructura orgánica básica.

1. Para el ejercicio de sus competencias y bajo la superior dirección de su titular, el departamento se estructura en las siguientes unidades orgánicas:

- a) Dirección General de Medio Ambiente:
 - Servicio de Medio Ambiente.
- b) Dirección General de Obras Hidráulicas:
 - Servicio de Obras Hidráulicas.
 - Unidad de Geotecnia y Recursos Hidráulicos.
 - Unidad de Control y Calidad del Agua.
- c) Secretaría Técnica.

2. Se adscribe a este departamento la fundación pública foral «Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa/Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa».

Artículo 3. Funciones y competencias del diputado foral.

1. Además de las funciones derivadas de su condición de miembro del Consejo de Gobierno Foral, corresponden al diputado foral del departamento, como titular y órgano jerárquicamente superior del mismo, la dirección y control de todas sus unidades orgánicas.

2. Para el cumplimiento de sus funciones, el diputado foral ostenta en principio y en los términos previstos en el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, todas las competencias resolutorias sobre las materias gestionadas por el departamento y no atribuidas expresamente a otros órganos por la citada Norma Foral, el presente decreto foral u otra norma posterior.

3. El diputado foral podrá avocar para sí el conocimiento de un asunto cuya resolución corresponda ordinariamente o por delegación a sus órganos administrativos dependientes.

Artículo 4. Las direcciones generales.

1. La directora y director general, titulares de los órganos directivos del departamento, asumen la jefatura y la responsabilidad de los mismos. A tal efecto ejercerán, además de las atribuciones que con carácter general se recogen en el artículo 46 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, las siguientes:

a) La implementación del programa de gobierno y del Plan Estratégico, incorporando la visión estratégica y la transversalidad en el conjunto de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) La implementación de las políticas públicas y el cumplimiento de los objetivos de gestión establecidos por el diputado foral del departamento.

c) Foru Aldundiaren politiken aplikazioa bultzatzea ondorengo alor hauetan: Administrazioaren berrikuntza eta eraldaketa, prozeduren hobekuntza, giza baliabideen garapena eta herri-terrekiko harremanak.

d) Zuzendaritza nagusiko zerbitzu eta unitateen jarduna programatu, koordinatu eta kontrolatzea.

e) Departamentuaren ordezkari protokolaria betetzea, foru diputatua ez dagoenean eta dituen eskumenen esparruaren barruan.

f) Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 48.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz foru diputatuak eskuordetze bidez ematen dizkien eginkizunak betetzea.

2. Eginkizun horiek betetzeko, gai hauetan ebazteko eskumena eduki eta erabiliko dute zuzendari nagusiek, deskontzentrazioko arauak jarraikiz:

2.1. Laguntza, dirulaguntza eta bestelako transferentzietan:

a) 75.000,00 eurora arteko laguntzak eta dirulaguntzak ematea: betiere aurrekontu programetan eta hala ezartzen den oinarri arautzaileetan aurreikusitakoak.

b) Aurretik administrazio egintzen bidez baimendutako gastuei dagozkien ordainketak egitea, zenbatekoa edozein dela ere. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa onuradunak benetan egindako gastuari egokitu ahal izango dute.

c) Beraiek emandako dirulaguntzen itzulketak.

2.2. Kontratazio arloan:

a) Beren zuzendaritzako gaitan obra proiektuak onartzea, eta obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatze espedienteak onartzea eta dagozkion kontratuak esleitzea, lizitazioaren oinarriko aurrekontua 75.000,00 euro artekoa denean; berarekin daramatza, baita ere, dagozkion gastua onartzea eta indarrean dagoen sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak kontratazio organoari aitortzen dizkion gainerako ahalmenak.

b) Kontratuen enpresa esleipendunek aurkez dituzten segurtasun eta osasuneko planak onartzea.

c) Sektore Publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoaren arabera kontratistek aurkeztutako obra egitarauak onartzea.

d) Obra ziurtapenak eta bestelako konturako ordainketak onartu eta ordaintzea, zenbatekoa edozein dela ere.

e) Kontratuko epeak betetzeari dagokionez atzerapen zigorrak jartzea.

f) Obra, hornidura eta bestelako prestazioen harrera egitea; eta departamentuak onartutako kontratuetan obren amaierako ziurtapenak eta likidazioak onartzea, betiere gastu gehigarria esleipen prezioaren % 10 baino gutxiago bada.

g) Bermeak ezereztu eta itzultzea.

2.3. Derrigorrezko desjabetzapenak, departamentuaren eskumeneko proiektuen Kudeaketari dagokionez: balio justuak ordaintzea 75.000,00 euro edo gutxiagokoak badira.

2.4. Bestelako gaitan:

a) 75.000,00 eurorainoko beste edozein gastu egiteko baimena ematea.

b) Lehendik baimenduta dauden gastuei dagozkien edonolako ordainketak egitea, zenbatekoa edozein dela ere.

c) Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalteengatik irekitako ondare erantzukizuneko espedienteak ebaztea, erreklamazio administratiboa 75.000,00 euro baino gehiagokoa ez denean.

c) El impulso de la aplicación de las políticas de la Diputación Foral en las siguientes materias: innovación y transformación de la Administración, mejora de procedimientos, desarrollo de sus recursos humanos, y relaciones con la ciudadanía.

d) La programación, coordinación y control de la actuación de los servicios y unidades de la dirección general.

e) La representación protocolaria del departamento, en ausencia del diputado foral y dentro del ámbito de sus respectivas competencias.

f) Las competencias que el diputado foral les delegue al amparo de lo dispuesto en el artículo 48.2 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio.

2. Para el cumplimiento de las funciones señaladas, la directora y director general ostentarán y ejercerán, en régimen de desconcentración, las siguientes competencias resolutorias:

2.1. En materia de ayudas y subvenciones u otras transferencias:

a) Concesión de ayudas y subvenciones por importe no superior a 75.000,00 euros, previstas en los programas presupuestarios y en aquellas bases reguladoras en las que así se establezca.

b) Abonos por cualquier importe correspondientes a gastos autorizados por actos administrativos previos, pudiendo ajustar el importe de la subvención concedida al gasto efectivamente realizado por la persona o entidad beneficiaria.

c) Reintegros de subvenciones por ellos concedidas.

2.2. En materia de contratación:

a) Aprobar los proyectos de obra y los expedientes de contratación de obras, suministros y servicios en las materias propias de su dirección y resolver sobre su adjudicación, cuando el presupuesto base de licitación no supere los 75.000,00 euros; lleva implícita la aprobación del gasto y las demás facultades que la legislación en materia de contratos del sector público atribuye al órgano de contratación.

b) Aprobación de los planes de seguridad y salud que presenten las empresas adjudicatarias de contratos.

c) Aprobación de los programas de obra presentados por los contratistas conforme a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.

d) Aprobación y abono de certificaciones de obras y otros pagos a cuenta, cualquiera que sea su importe.

e) Imposición de penalidades por demora en el cumplimiento de los plazos contractuales.

f) Recepción de las obras, servicios, suministros y otras prestaciones, y aprobación de las certificaciones finales de obra y la liquidación de los contratos autorizados por el departamento, siempre que el gasto adicional sea inferior al 10 % del precio de adjudicación.

g) Cancelación y devolución de fianzas.

2.3. En materia de expropiación forzosa, en relación con la gestión de proyectos competencia del departamento: abono de justiprecios por importe no superior a 75.000,00 euros.

2.4. En otras materias:

a) Autorización de otros cualesquiera gastos por importe de hasta 75.000,00 euros.

b) Abonos de todas clases y por cualquier importe, correspondientes a gastos previamente autorizados.

c) Resolución de expedientes de responsabilidad patrimonial por daños sufridos por terceros como consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos, siempre que la correspondiente reclamación administrativa no supere la cuantía de 75.000,00 euros.

d) Oro har, partikularren eta herri administrazioen eskariei erantzutea, baldin eta 75.000,00 euro baino gehiagoko gastu konpromisoa ez badakarte.

3. Ondare erantzukizuneko gaietan izan ezik, deskontzentrazioko arauei jarraikis ezleitu zaizkien eskumenak erabiliz zuzendari nagusiek hartzen dituzten ebazpenek ez diote amaiera emango bide administratiboari, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio departamentuko foru diputatuari.

5. artikulua. Zerbitzuburuak.

1. Zerbitzuburuaren eginkizuna da, zuzendaritzarekin partekatutako hausnarketaren esparruan, erakundearen helburu programatikoak eta estrategikoak aurrera ateratzeko ekintza nagusiak aztertzea eta proposatzea, haiek emandako jarraibideak aintzat harturik.

2. Zehazki, zerbitzuburuari dagokie:

a) Foru gobernuak beren eremurako proposatutako erronkei ekitea eta zerbitzuko Kudeaketa planak proposatzea, helburuak, ekintzak, baliabideak eta ebaluatzeko adierazleak zehaztuta.

b) Zerbitzuaren egiturako beste mailetak langileei helburuen berri ematea, eta horiek eragimenez lortzeko lan sistema egokiak antolatzea.

c) Beren ardurapean dauden langileen zuzendaritza eta horiei aplikatzen zaizkien arauak betetzen direnaren zuzeneko kontrola bere gain hartzea.

d) Beren ardurapeko langileen taldeko eta banakako lana planifikatu, antolatu, zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.

e) Zerbitzuko barne erregimena betetzen den kontrolatzea, eta gorabeheren berri ematea.

f) Beren ardurapeko giza nahiz ekonomia baliabideak modu eraginkorrean eta organo eskudunek emandako arauen arabera kudeatzea, arrazionalizazio eta etengabeko hobekuntzako estrategiak aurrera eramanez herritarrari zerbitzu hobea eskaintzeko xedez.

g) Esleitu edo eskuordetzen zaizkion eginkizunak betetzea.

II. KAPITULUA

EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA

1. ATALA. Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

6. artikulua. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

1. Zuzendari nagusiaren buruzagitza eta erantzukizunaren pean, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ondorengo eginkizunak ditu:

a) Hiri hondakinen Kudeaketaren planifikazioa eta garapena, eta ekonomia zirkularra.

b) Jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa. Agenda 21 eta Agenda 2030.

c) Jasangarritasun energetikoa.

d) Lurralde erresilientzia, azpiegitura berdeak. Ingurumen ebaluazioa.

e) Klima aldaketaren aurkako borroka.

f) Hondartzen eta itsasertzaren Kudeaketa integrala.

g) Jarduera sailkatuak.

h) Indarrean diren arauen arabera gai horietan dagozkion gainerako eskumenak.

d) Resolución en general de peticiones de particulares y administraciones públicas, siempre que no supongan compromisos de gasto por importe superior a 75.000,00 euros.

3. Salvo las dictadas en materia de responsabilidad patrimonial, las resoluciones de la directora y director general en el ejercicio de las competencias atribuidas por desconcentración no ponen fin a la vía administrativa y frente a ellas cabrá la interposición de recurso de alzada ante el diputado foral del departamento.

Artículo 5. Las jefaturas de servicio.

1. Los jefes y jefas de servicio son las personas responsables, en el marco de una reflexión compartida con la dirección, de estudiar y proponer las acciones necesarias para el desarrollo de los objetivos programáticos y estratégicos de la institución, siguiendo las instrucciones de sus superiores.

2. En concreto, les corresponde:

a) Acometer los retos propuestos por el gobierno foral y elaborar las propuestas de planes de gestión de su servicio, definiendo los objetivos, acciones, recursos e indicadores que permitan su evaluación.

b) Comunicar los objetivos a los demás niveles de la estructura de su servicio y organizar los sistemas de trabajo de manera adecuada para la consecución eficiente de los mismos.

c) Asumir la dirección del personal a su cargo y el control directo del cumplimiento de las normas de aplicación a dicho personal.

d) Planificar, organizar, dirigir, coordinar y evaluar el trabajo, en grupos o individual, del personal a su cargo.

e) Controlar el cumplimiento del régimen interno del servicio, dando cuenta de las incidencias.

f) Gestionar eficientemente los recursos humanos y económicos a su cargo, con arreglo a las normas establecidas por los órganos competentes, configurando estrategias de racionalización y de mejora continua como medio para prestar un mejor servicio a la ciudadanía.

g) Ejercer las funciones que les sean atribuidas o delegadas.

CAPÍTULO II

ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL

SECCIÓN 1.ª Dirección General de Medio Ambiente

Artículo 6. Funciones de la Dirección General de Medio Ambiente.

1. Bajo la jefatura y responsabilidad de su titular, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Planificación y desarrollo de la gestión de residuos urbanos y economía circular.

b) Sostenibilidad y educación y sensibilización ambiental. Agenda 21 y Agenda 2030.

c) Sostenibilidad energética.

d) Resiliencia e infraestructuras verdes. Evaluación ambiental.

e) Lucha contra el cambio climático.

f) Gestión integral de playas y litoral.

g) Actividades clasificadas.

h) Las demás que en tales materias resulten de la normativa vigente.

2. Bere eginkizunak betetzeko, 4.2 artikuluan aipatzen diren gain, gai hauetan ere ebazteko eskumena izan eta erabiliko du Ingurumeneko zuzendari nagusiak deskontzentrazioko arauel jarraikiz:

2.1. Ingurumen eraginari dagokionez:

a) Irismen Agiria ematea planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedurei dagokienez, eta proiektuen ingurumen inpaktuaren ebaluaziokoei dagokienez.

b) Txostenak egitea, zeintzuekin bukatzen baitira planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoko sinplifikatuko prozedurak (Ingurumen Txosten Estrategikoa), eta proiektuen ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatukoak (Ingurumen Inpaktuaren Txostena).

c) Ingurumeneko eraginaren adierazpenen eta txostenen baldintzak betetzen direnari buruzko ebazpena.

d) Lurraldeko Natura 2000 Sarearen esparruetan eragina izan dezaketen proiektuek eta planek ingurumen eraginaren ebaluazioaren prozedura behar duten ala ez erabakitzeke ebazpena.

2.2. Jarduera sailkatuen arloan, bizitegi lurzoru hiritarreko jardueren neurri zuzentzaileak seinalatzeke txostenak egitea.

2.3. Bestelako gaietan:

a) Foru Aldundiari dagozkion azpiegitura linealeko obretatik datozen indusketako soberakinekin betelanak edo biltegiak egiteko baimen espedienteen ebazpena.

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 65. artikuluan aurreikusitako kenkaria lortzeko ingurumen egokitasunaren egiaztagiriaren eskaera ebazpena baita foru arau horretako 21. artikuluan aurreikusitako txostenarena ere.

7. artikulua. Ingurumen Zerbitzua.

Bere titularren erantzukizunaren pean, zerbitzu horrek ondorengo eginkizunak ditu:

1. Hiri hondakinen Kudeaketaren planifikazioa eta garapena, eta ekonomia zirkularra:

a) Gipuzkoako hiri hondakinen esparru plangintza prestatu, garatu eta haren jarraipena egitea (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra -2019-2030 Hondakin Plana-).

b) Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Behatokia bultzatu eta garatzea. Behatokiko Mahaia garatzea.

c) Solaskidetzan aritzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Hondakinen Koordinazio Organoarekin.

d) Udal jarduketak koordinatzea eta udalez gaindiko azpiegiturak bultzatzea.

e) Ekintza hauek bultzatzea: prebentzioa, gaikako bilketa sistemak hobetzen laguntzea, berrerabilera eta birziklapenerako prestatzea, balorizazio material eta energetikoa, eta ezabaketaren optimizazioa.

f) Zabor sakabanatua murrizteko eta zuzentzeko plana bultzatzea eta garatzea.

g) Birziklapeneko eta moda jasagarriko enpresetako lantaldeak bultzatzea. GK Recycling eta GK Green Fashion. Erosketa zirkularreko taldea.

h) Ekonomia zirkularreko gobernantza kudeatu eta garatzea.

2. Jasagarritasuna eta ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioa:

